


SARBIDEAK

ARRASATE/
MONDRAGÓN



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



CUADRILLA DE VITORIA-GASTEIZ
VITORIA-GASTEIZ ESKUALDEA



CUADRILLA DE SALVATERRA
AGUIRANGO ESKUALDEA



Zuiako Koadrila
Cuadrilla de Zuia



Agurango turismo bulegoa:
945 312 535

Murgiako turismo bulegoa:
945 161 598

Vitoria-Gasteizko turismo bulegoa:
945 161 598

Garaioko informazio puntua:
695 782 498

IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA: GR 38 Etapa 4.A Estibaliz-Legutio

GR 38aren etaparik gogorrena dugu hau. Estibalizko santutegia eta Legutioko hiribildua lotuko dituen 28 km inguruko ibilbidea. Bidez bide Arabako Lautada zeharkatzeko aukera eskaintzen digun ibilbide honek paisaiaren edertasuna eta urtegiak sortzen duten kontraste bitxiaz gozatzeko aukera emango digu.

0 km. - ESTIBALIZ

Bidexka atsegin bat abiatzen da santutegi ondoko atsedenekutik, tren geraleku ondofik pasatu eta errepidea zeharkatuta Oreitiako herrira jaisteko aukera emango diguna. Herrigune honetan interés handiko eraikuntzak aurkituko ditugu, XVI. mendeko jauregiak eta XIII mendeko eliza, besteak beste. Partzela artefik doa Oreitia eta Arbulu arteko bidea, aurrerago Uribarri-Ganboa urtegi ondoraino jarraituko duena. Bertan, paisaiaren edertasunaz gozatzeko aukera ezin hobea izango dugu. Erkametz nagusi deneko parajea



zeharkatuta helduko gara Mendibilera. Mendibil eta Amarita arteko distantzia laburra Zadorra ibaiaren parean doan bidexkatik abiatuta egingo dugu.

16,2 km.- AMÁRITA

Bidean Urrunagako urtegiaren ikuspegi ederraz gozatzeko aukera eskaintzen digun xenda estu batek hurbilduko gaitu Urbinagako tontorrera. Hemendik izen bereko herri ingurura jaitsiko gara. Bertan Vasco-Navarro trenbide zaharrarekin egingo dugu topo eta ibilbide honi jarraituz helduko gara Legutioko tren geltoki zaharrera. Eraikin bitxi hau Legutioko hiribildutik nahiko urruti dago. Bidezidor, bide eta errepideak zeharkatzen dituen 4 km-ko ibilbidea egin ostean helduko gara Legutiora, etapa honen bukaera puntura.



MIDE



28 Km



351 m



7 h 30`

Gogortasuna



1

Severidad

Orientazioa



2

Orientación

Desplazamendua



2

Desplazamiento

Esfortzua



4

Esfuerzo

MIDE ibilbideen gogortasun teknika zein fisika baloratzeko erabiltzen den txangolarien arteko komunikazio sistema da.

MIDEn zailtasun desberdineko lau aspektu baloratzen dira (1etik 5erako puntuazioarekin, txikitik handira):



Ingurune naturalaren gogortasuna



Ibilbidean orientatzeko zailtasuna




Desplazamenduaren zailtasuna




Behar den ahalegin maila

PROFILA



IBILBIDE-ORRIA: GR 38 Etapa 4.A Estibaliz-Legutio



IBILTARIAREN DEKALOGOA

- 1.- Ibilbidearen plangintza egin alde aurretik
- 2.- Ahal izanez gero, lagunekin joan
- 3.- Ibilbidearen berri eman ingurukoei
- 4.- Arropa egokia eraman
- 5.- Edari eta janari nahikoa eraman

- 6.- Ez ahaztu eguzkitako krema
- 7.- Landareak eta animaliak errespetatu
- 8.- Ez irten markatutako ibilbideetatik
- 9.- Ingurunea zaindu
- 112 10.- Larialdi-egoeran 112 telefonora deitu